

2. BEZEROEN SEGMENTUA

Nori saldu

- Gure produktua segurtasuna eta lasaitasuna bilatzen duten pertsonen salduko diegu. Oso desitatuak den jendeararentzat eta gauza asko galtzen dituenarentzat ere baliagarria da. Edozeinek erabil dezake bere objektu baliotsuak babesteko, hala nola bizikleta, telefonoa, ordenagailua, motxila, karterak edo giltzak. Beraz, gure bezeroak izango dira ikasleak, langileak, bidaiariak, familiarek edo edozein edadeko jendea beraien gauzak galdu edo lapurtuak izan ez daitezen, batez ere:

Bezero motak

- **Haurrak:**

- Erraztasuna dute gauzak galtzeko adibidez jostailu baliotsu bat edo bizikleta bat.

- Gurasoek lasaitasunarekin erosiko dute gauzak.

- **Nerabeak:**

- Egunero mugikorra, giltzak, motxila... eramaten dituzte.

- Askotan mugimenduan daude: ikastetxea, kirola, lagunak, bidaiak...

- **Helduak:**

- Mugikorra, maleta, kaskoak erabiltzen dituzte eta erraztasuna dago galtzeko

- Gainera askotan lanera joateko garraio publikoa erabiltzen da, beraz, mugimendu asko dago.

- **Adineko pertsonak:**

- Askok memoria arazoak izaten dituzte

- Horregatik erraztasun handia dute ere gauzak galtzeko eta senideak gure aplikaziotik ahal dezaketa beraien objektu garrantzitsuak bilatu edo lokalizatu.

- Gainera, lapurketa gehienak, behaiaetaz aprobetxatuz, adineko pertsonetan izaten dira.

- Senide eta familiarrei lasaitasuna heman.

- **Enpresak:**

- Enpresa askoren kezka beraien langileen galdutako objektuak izaten dira, horregatik gure aplikazioak hori dena saihestuko du.

Bezeroen ezaugarriak:

- Erraztasuna eta funtzionaltasuna bilatzen dituzte, teknologia sinplea erabiltzen dute eta produktua fidagarria, txikia eta diskretua izatea nahi dute. Gainera, segurtasun pertsonala eta datuen babesa baloratzen dituzte. Hontaz aparte, lapurtuak izateko beldurra kentzea nahi dute.

Segmentua zehaztu

- Gure segmentu nagusia dira 16–45 urte bitarteko ikasle eta hiri-inguruneke langileak, egunerokoan mugikorra, motxila edo bizikleta/patinetea erabiltzen dutenak.
- Bigarren segmentu garrantzitsua dira adineko pertsonak edo memoria-arazoak dituztenak, eta euren gauzak galtzearen beldur direnak, baita haien senideak ere.

Ingurune espezifikoak

- Gure produktua ingurune urbano eta teknologikoan erabiltzeko pentsatua dago. Jende askok mugikorrak eta objektu baliotsuak daramatzan lekuetan oso erabilgarria da: hiriak, ikastetxeak, lantokiak eta bidaietan.
- Gainera, gure produktuak teknologia adimenduna (GPS, sentsoreak, aplikazio mugikorra) erabiltzen duenez, ingurune digital eta konektatu batean kokatzen da.
Horrek laguntzen du hiri seguruagoak eta jasangarriagoak sortzen, eta lapurretak edo galera egoerak batez ere gutxitzen.

Egoera zehatzagoak:

- Hiri ingurunean: Ikastetxean, etxean, kalean zure objektu garrantzitsuenak galtzen dira. Lapurketa asko egon daitezke ere
- Bidaietan: Mobila, motxila edo bidaietara ematen dezun kamara
- Hiri handietan eta mugikortasun handiko eremuetan (donostia, bilbo...), jendeak mugikorra, bizikleta eta motxila daramatza ia beti. GeoSegur pegatinak objektu horietan jarrita, lapurreta edo galera kasuan berehala aurkitzeko aukera ematen du.